

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GETARIAKO UDALA

«Getariako erretirodun eta pentsiodunen guneko araudiaren» behin-betiko onespena.

Udalbatzarrak, 2019ko martxoaren 28an egindako bileran, «Getariako erretirodun eta pentsiodunen guneko araudia» hasiera batez onartzeari buruzko erabakia hartu zuen.

Onartutako ordenantza eta izapidetutako espedienteen jendaurreko erakustaldian izan dira, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin-betiko onartutzat geratu da Udalbatzarraren akordioan ezarritakoaren arabera.

Ordenantza indarrean sartu dadin eta denen jakiterako apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatua betez, Ordenantzaren behin-betiko testu osoa iragarki honekin batera argitaratzen da.

Bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo egiteko, interesdunek, Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoran administrazioarekiko auzi-helegitea jarri dezakete, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Getaria, 2019ko ekainaren 10a.—Nikanor Lertxundi Iburguren, alkatea. (3881)

Getariako erretiratu eta pentsiodunen udal egoitzaren araudia.

1. artikulua. Egoitzaren titulartasuna.

Itsas Etxea izeneko eraikina Getariako Portuan dago, eta Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa da (Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza). Eusko Jaurlaritzak, 2017ko apirilaren 6ko erabaki bidez, Getariako Udalarari eman zion administrazio emakida, eraikinaren bigarren solairuan Erretiratuen egoitza eta gastronomia elkarteak jartzeko.

2. artikulua. Egokitzapen lanak.

Getariako Udalak, jabetzaren baimenarekin (Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren 2017ko irailaren 4ko erabaki bidez egiaztatua), beharrezkoak diren berrikuntza lanak egin ditu, emakidaren helburuen arabera erabili ahal izateko lokala.

3. artikulua. Udalaren helburuak erretiratuen eta pentsiodunen egoitzari dagokionez.

Udalarentzat, erretiratuen egoitza eta bertako bazkideek demokratikoki aukeratzen dituzten ordezkariak izango dira berehalako eta lehentasuneko bidea erretiratu eta pentsiodunen kolektibo osoarentzat sorturiko informazioa bideratzeko. Topagune eta bilera toki gisa, kolektibo horretako partaideek banaka eta elkartuta parte hartzeko balioko du eta elkarri laguntzeko ekintzak sustatuko ditu, helburu nagusia izanik bazkide diren herritarren eta, orokorrean, erretiratu eta pentsiodunen kolektibo guztia bizimodua hobetzea. Horretarako, helburu horiek lortzeko jarduerak egingo dira, bereziki kolektibo horrentzat pentsatuak.

AYUNTAMIENTO DE GETARIA

Aprobación definitiva del «Reglamento del hogar de jubilados y pensionistas de Getaria».

El Ayuntamiento Pleno en sesión de 28 de marzo de 2019 aprobó con carácter inicial el Reglamento del hogar de jubilados y pensionistas de Getaria.

La ordenanza aprobada así como el expediente tramitado han estado expuestas al público durante 30 días y como no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna al respecto, de conformidad con lo previsto en el acuerdo plenario, la ordenanza ha quedado aprobada definitivamente.

Para su entrada en vigor y conocimiento general, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, con el presente anuncio se publica el texto íntegro de la ordenanza aprobada definitivamente.

Contra este acuerdo que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden interponer recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Getaria, a 10 de junio de 2019.—El alcalde, Nikanor Lertxundi Iburguren. (3881)

Reglamento del hogar municipal de jubilados y pensionistas de Getaria.

Artículo 1. Titularidad del centro.

El edificio Itsas Etxea situado en el Puerto de Getaria es propiedad del Gobierno Vasco (Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos) que por Resolución de 6 de abril de 2017 otorgó concesión administrativa al Ayuntamiento de Getaria para destinar la segunda planta del edificio a Hogar de Jubilado y Sociedad gastronómica.

Artículo 2. Obras de adecuación.

El Ayuntamiento de Getaria, con permiso de la propiedad, verificada mediante Resolución de 4 de septiembre de 2017, del Director de Puertos y Asuntos Marítimos, ha realizado las obras de reforma necesarias para poder utilizar el local conforme a los fines de la concesión.

Artículo 3. Fines municipales respecto del hogar de jubilados y pensionistas.

Para el Ayuntamiento, el hogar del jubilado y los representantes que democráticamente elijan sus socios, serán la vía inmediata y preferente para canalizar la información generada para el colectivo general de jubilados y pensionistas. Como sitio de encuentro y reunión, servirá para fomentar la participación personal y comunitaria de los integrantes de dicho colectivo, estimulará las acciones de ayuda mutua, teniendo como fin general, mejorar la forma de vida de todos aquellos ciudadanos que adquieran la condición de asociados así como del colectivo de jubilados y pensionistas en general, mediante la realización de actividades tendentes a lograr dichos objetivos y dirigidas específicamente a dicho colectivo.

4. artikulua. Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte.

Arrantzale Zaharren Elkarte izeneko Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen lekukoa hartuz, Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte eratu da, eta tokiko elkarte honek bilduko ditu, eskubide osoko bazkide gisa, kolektibo hori osatzen duten eta borondatez bazkide izan nahi duten pertsona guztiak. Horretarako, estatutuak onartuko dituzte, eta Eusko Jaurilaritzaren elkartearen erregistroan erregistratuko dituzte.

Era berean, helburuen artean izango du Getariako Udalarik babesa ematea, eta udalerrian egiten diren ekintzak, programak eta gainerako jarduerak planifikatzen, prestatzen, garatzen eta behar bezala burutzen laguntzea, ekintza, programa eta jarduerak horien hartzaitzaileak Getariako erretiratuak eta pentsiodunak diren neurrian.

5. artikulua. Interesek bat egitea.

Formalki, Getariako Udala da emakidaren titularra, eta titulartasunari dagozkion ahalmenak eta eskubideak gordetzen ditu; horren ondorioz, instalazioak behar bezala kudeatzearen eta erabiltzearen arduraduna da Eusko Jaurilaritzaren aurrean, egoitzak behar bezala jardun dezan eta demokraziaren oinarriko printzipio bat, parte-hartzea, ez dadin urratu. Hala ere, eguneroko funtzionamendua eta instalazioen ohiko kudeaketa aurrera eramatearen arduraduna egoitzaren erabiltzaileen kolektiboa izango da, Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen bidez antolatua, eta, era berean, bide horren bidez egingo dira Getariako erretiratu eta pentsiodunen kolektiboari zuzenduriko jarduerak ere.

6. artikulua. Instalazioak lagatzea.

Beraz, Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte berak irizten duen moduan egituratu eta antolatuko da, behar bezala eginiko eta erregistraturiko estatutuen bidez. Hala ere, Getariako Udalak, emakidadun gisa, gutxieneko oinarri hauek onartu ditu, eta Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak bete egin beharko ditu, Getariako Itsas Etxea eraikineko instalazioak erabili ahal izateko.

Behin Elkarte behar bezala erregistratuta dagoenean, Getariako Udalak elkarte horri lagako dio Itsas Etxea eraikineko bigarren solairuko instalazioen erabilera. Modu horretan, Eusko Jaurilaritzak ezarritako baldintzen arabera, erretiratuek eta pentsiodunek erabili ahal izango dituzte instalazio horiek, beraien estatutuek aurreikusten duten moduan.

Getariako Udalak eskubidea du solairuko hegoalde-mendealde muturrean dauden bi aretoak erabiltzeko (sukaldea/bulegoa eta balio anitzeko gela, aldagela), portuko zonako trafikoa eta aparkalekua zaintzeko kontrataturiko langileek behar dituzten erabilera osagarrietarako. Hala ere, areto horiek behar ez dituztenean, erretiratuek eta pentsiodunek erabili ahal izango dituzte.

7. artikulua. Lankidetzarako batzordea.

Bazkideek hiru kide izendatu behar dituzte, modu demokratikoan aukeratuta. Kide horiek Elkarte Zuzendaritza Batzordeko kide ere izan daitezke. Kideek osatuko dute, alkatearekin edo honek izendatzen duen pertsonarekin eta gizarte langilearekin batera, Lankidetzarako Batzordea, eta organo horren egitekoa izango da emakidaren helburuak behar bezala betetzen direla zaintzea. Edonola ere, arduradun nagusia eta behin betiko erabakia hartzeko ahalmena duena Getariako Udala da.

Batzordea hiru hilean behin bilduko da, urtarrileko, apirilko, uztaileko eta urriko lehenengo astean. Batzorde horretan onartuko dira hiruhileko bakoitzerako programaturiko jardueren egutegia eta urteko programa. Programazioa egin baino lehen, udal ordezkariak helaraziko du eskuragarri dagoen udal aurrekontuari buruzko informazioa.

Artículo 4. La Asociación de Jubilados y Pensionistas de Getaria.

Tomando el testigo del Club de Jubilados y Pensionistas Arrantzale Zaharren Elkarte, se va a constituir la Asociación de Jubilados y Pensionistas de Getaria, que pasará a ser la asociación local que aglutine, como asociados de pleno derecho, a todas las personas que engloban dicho colectivo y voluntariamente quieran tener la consideración de socias según los estatutos que aprobarán y registrarán en el registro de asociaciones del gobierno vasco.

A su vez incluirán entre sus fines prestar apoyo al Ayuntamiento de Getaria y colaborar en la planificación, preparación, desarrollo y correcta ejecución de las acciones, programas y demás actividades que se desarrollen a nivel local cuyos destinatarios serán los jubilados y pensionistas de Getaria.

Artículo 5. Concurrencia de intereses.

Aunque en el aspecto formal el Ayuntamiento de Getaria es el titular de la concesión y conserva las facultades y derechos inherentes a su titularidad, lo cual le hace ser responsable ante el Gobierno Vasco de la correcta gestión y uso de las instalaciones, para que exista un buen funcionamiento del centro y no se contravenga el principio básico de la democracia como es la participación, el colectivo de usuarios del mismo, articulado a través de la Asociación de Jubilados y Pensionistas de Getaria, será la entidad que se ocupará de llevar adelante el funcionamiento diario y la gestión ordinaria de las instalaciones y el medio común o canal por el cual se llevarán a cabo las actividades dirigidas al colectivo de jubilados y pensionistas de Getaria.

Artículo 6. Cesión de las instalaciones.

Por tanto, sin perjuicio de que la Asociación de Jubilados y Pensionistas de Getaria se articule y organice como considere oportuno, a través de los estatutos que elaborará y registrará oportunamente, el Ayuntamiento de Getaria como concesionario aprueba estas bases mínimas que deberá respetar la Asociación de Jubilados y Pensionistas de Getaria para utilizar las instalaciones de Itsas Extra de Getaria.

Una vez que la Asociación esté correctamente inscrita, el Ayuntamiento de Getaria cederá a la misma el uso de las instalaciones de la segunda planta del edificio Itsas Etxea, para que conforme a las condiciones impuestas por el Gobierno Vasco, sea utilizada por los jubilados y pensionistas, en la forma en que prevean sus estatutos.

El Ayuntamiento de Getaria se reserva el uso de las dos dependencias situadas en el extremo sur-oeste de la planta (cocina/ofice y zona polivalente, vestuario) para los usos auxiliares que precisa el personal contratado para la vigilancia del tráfico y aparcamiento de la zona portuaria. No obstante, cuando no las precise, podrán ser utilizadas por los jubilados y pensionistas.

Artículo 7. Junta de colaboración.

Los socios, por elección democrática, designarán a tres miembros (que pueden ser a su vez miembros de la Junta Directiva de la Asociación), que constituirán junto con el Alcalde o la persona que designe el Alcalde y la trabajadora social la Junta de Colaboración, corresponde a dicho órgano velar por el correcto cumplimiento de los fines de la cesión, aunque en cualquier caso, el responsable último y el que posee la potestad en la última decisión es el ayuntamiento de Getaria.

Esta Junta se reunirá trimestralmente, la primera semana de los meses de enero, abril, julio y octubre para acordar el calendario de actividades programadas para dicho trimestre y el programa anual. Antes de realizar la programación el representante municipal informará sobre el presupuesto municipal disponible.

Batzordearen akta Udalari bidaliko zaio, eta udalak konpromisoa hartzen du, ahal duen neurrian, adosturiko zerbitzuak eta jarduerak kontratatu eta finantzatu dituela, zati bat edo osorik.

Bilera horietan jorratuko dira, baleude, diziplina eta zigorren arloari buruzko gaiak ere.

8. artikulua. Programazio ekonomikoa.

Getariako Udalak, bere diru laguntzen plangintza estrategikoan, Getariako erretiratu eta pentsiodunei bideraturiko programak garatzeko kontu saila sartuko du. Programa horiek deialdi publiko bidez emango dira, eta aintzat hartuko da, horretarako, jarduerak erretiratu eta pentsiodunen kolektibo guztia erantzatez, lehentasuna emango zaie Itsas Etxea eraikineko egoitzan antolatu eta ematen diren jarduerari, eta, azkenik, Lankidetzarako Batzordeak proposatu edo bermatzen dituenak lehenetsiko dira.

Edonola ere, Udalaren lankidetzak ekonomikoa diru laguntza bidezkoa izango da, eta ez du bere gain hartuko inongo erantzukizunik edo lan arloko loturarik. Elkarteak kontrata ditzakeen pertsonen eta materialei buruz.

9. artikulua. Tokiko elkartearen estatutuek bete beharreko gutxienezko oinarriak.

* Eskubideak.

— Egoitzaren erabiltzaileak izan daitezke bazkideak diren pertsonak.

— Bazkide numerario izateko, erretiratu edo pentsioduna izan behar da. Horrez gain, ez da eduki behar gaixotasun infekzioso edo kutsakorrik, edo egoitzako eguneroko bizikidetzak asaldatzeko moduko psikopatiarik. Era berean, bazkide numerarioaren ezkontidea (edo egoera baliokidean dagoen pertsona) ere bazkide izan daiteke.

— Udalerrian erroldatu gabeko pertsonen ere badute bazkide izateko aukera, ahal izanez gero, kontuan izanik instalazioen neurria eta baldintzak.

— Egoitzako bazkideek eskubide hauek izango dituzte: instalazioak eta zerbitzuak eskuragarri izatea eta erabiltzea, antolatu diren zerbitzuetan eta jardueretan parte hartzea, Lankidetzarako Batzordeari beren proposamenak eta gomendioak jakinaraztea, Elkartearen gobernu organoetan parte hartzea eta botoa ematea nahiz aukeratua izatea, eta, orokorrean, egoitzaren inguruan egiten den programazio guztian modu aktiboan parte hartzea eta programazio horren onurak jasotzea.

* Betebeharrak.

— Instalazioak behar bezala erabiltzea.

— Bizikidetzak arauak betetzea eta elkar errespetatzea egoitzaren barnean eta egoitzako jarduerekin loturiko edozein tokitan.

— Garaiz ordaintzea tasak, zerbitzuen zenbatekoa eta ezar daitezkeen kuotak.

* Sariak.

Udalak ohorezko aipamena egin dakieke zenbait bazkideri, egoitzan eta erretiratu eta pentsiodunen kolektiboan lan handia egin dutela iritzita. Aipamen horiek egiteko, kontuan izango dira Lankidetzarako Batzordearen bidez jasotako proposamenak.

* Hutsegiteak eta zigorrak.

Era berean, udal Elkartearen estatutuek hutsegiteen (hutsegite arinak, larriak eta oso larriak) eta zigorren dekalogoak ezarriko dute. Lankidetzarako Batzordeak Udalari jakinaraziko dizkio zer zigor jartzeko erabakia hartu duen eta horien arrazoiak. Proposamena jaso ondoren, zigor horiek jartzeko organo eskuduna alkatea izango da.

* Elkartearen araubide demokratikoa, partaidetzakoa eta inklusiboa.

Elkartearen estatutuetan aurreikusi behar da elkarteak modu demokratikoan, parte-hartzailean eta ez sexistan funtzionatu

El acta de la Junta se remitirá al Ayuntamiento que se compromete en la medida de sus posibilidades a contratar y financiar, en todo o en parte, los servicios y actividades acordadas.

En estas reuniones se tratarán, si las hubiera, las cuestiones relativas al ámbito disciplinario y sancionador.

Artículo 8. Programación económica.

El ayuntamiento de Getaria incluirá en su plan estratégico de subvenciones, una partida económica para el desarrollo de programas dirigidos a los jubilados y pensionistas de Getaria, para su adjudicación mediante convocatoria pública, se tendrá en cuenta que las actividades se dirijan a todo el colectivo de jubilados y pensionistas, se priorizarán las organizadas y prestadas en el local de Itsas Etxe y sean propuestas o avaladas por la Junta de Colaboración.

En cualquier caso, la colaboración económica del Ayuntamiento será vía subvención y no asumirá ninguna responsabilidad ni vinculación laboral respecto a los elementos personales y materiales que pudiera contratar la Asociación.

Artículo 9. Bases mínimas que respetarán los estatutos de la asociación local.

* Derechos.

— Podrán ser usuarios del Hogar quienes tengan la condición de socios.

— Para ser socio numerario se requiere ser jubilado o pensionista, no padecer enfermedad infectocontagiosa, ni psicopatías susceptibles de alterar la normal convivencia del Hogar. También podrá adquirir la condición de socio el cónyuge (o situación asimilada del socio numerario).

— No se excluye la posibilidad de ser socio a personas no empadronadas en el Municipio, siempre que sea posible, teniendo en cuenta la dimensión y condiciones de las instalaciones.

— Los socios del hogar tendrán derecho a acceder y a usar las instalaciones y servicios, podrán participar en los servicios y actividades que se organicen, podrán elevar a la Junta de Colaboración sus propuestas y sugerencias, participar en los órganos de gobierno de la Asociación y ser elector y elegible y en general participar activamente y beneficiarse de toda la programación que se elabore en torno al hogar.

* Deberes.

— Utilizar adecuadamente las instalaciones.

— Guardar las normas de convivencia y respeto mutuo dentro del hogar y en cualquier lugar relacionado con sus actividades.

— Abonar puntualmente las tasas, importe de los servicios y cuotas que puedan establecerse.

* Premios.

El Ayuntamiento podrá conceder mención honorífica a favor de aquellos socios que por su especial dedicación al hogar y al colectivo de jubilados y pensionistas considere oportuno. Para el otorgamiento de menciones se tendrán en cuenta las propuestas recibidas a través de la Junta de Colaboración.

* Faltas y sanciones.

A su vez, los estatutos de la Asociación municipal establecerán un decálogo de faltas (leves, graves y muy graves) y sanciones. La Junta de Colaboración dará cuenta al Ayuntamiento de las sanciones que proponga adoptar y los motivos de las mismas. Recibida la propuesta el órgano competente para imponerlas será el Alcalde.

* Régimen democrático, participativo e inclusivo de la Asociación.

Los estatutos de la asociación deben prever el funcionamiento democrático, participativo y no sexista de la misma.

behar duela. Egoitzako erabiltzaile guztiak parte hartu ahal izango dute elkartearen Batzar Nagusian eta beren ordezkariak aukeratu. Zenbait alderdi zainduko dira elkartean: bertako organoak parekideak izan behar dira, eta programazio guztiak hizkuntza sexista saihestu beharko du, bazkideen askatasuna eta autonomia sustatu beharko ditu eta inklusiboa eta akonfesionala izan beharko da.

Azken xedapenak.

Barne araudi hau edo gutxieneko oinarri hauek indarrean egongo dira Getariako Udala Itsas Etxea eraikineko bigarren solairuaren emakidaduna den bitartean. Gutxieneko oinarri hauek amaituko dira eta indarra galduko dute, edozein legezko arrazoi edo borondatezko arrazoiengatik emakida hori amaitzen denean.

Emakida amaitzen den kasuan, Getariako Erretiratuan Tokiko Elkarteak ezingo dio inolako eskubiderik edo kalte ordainik erreklamatu udalari.

Getariako Udalak bere jabetzako beste lokalen bat gaituko balu Getariako Erretiratu eta Pentsiodunen Egoitza jartzeko, oinarri hauek balio dezakete gune berri horretan bi alderdien arteko harremanak arautzeko.

Todos los usuarios del hogar, podrán participar en la Asamblea General de la asociación y elegir a sus representantes. Se velará para que los órganos de la asociación sean paritarios y para que toda la programación evite el lenguaje sexista, fomente la libertad y autonomía de los asociados y sea inclusivo y aconfesional.

Disposiciones finales.

El presente régimen interno o bases mínimas tendrán vigencia mientras el Ayuntamiento de Getaria sea concesionario de la segunda planta del edificio Itsas Etxea de Getaria y decaerán y perderán vigencia en el momento en que dicha concesión se extinga por cualquier causa legal o voluntaria.

En caso de extinción de la concesión, la Asociación Local de Jubilados de Getaria no podrá reclamar derecho o indemnización alguna al ayuntamiento.

Si el Ayuntamiento de Getaria habilitase algún otro local de su propiedad para instalar el Hogar de Jubilados y Pensionistas de Getaria estas bases podrán servir para articular las relaciones entre las dos partes en ese nuevo espacio.